



2025



# ARKEOLOGIA

*Aranzadiko udako indusketak*



Ikerketa arkeologikoak Aranzadi Zientzia Elkarteak udan garatzen dituen jarduera nagusietako bat dira. Koba, dolmen, herrixka, termagune, gaztelu, ermita eta abarretan erregistratzen den informazioa ezinbestekoa da gure iragana ezagutzeko eta gure ondarea kontserbatzeko.

Aranzadiren ikerketa arkeologiko horiek bertako zuzendarien, ikasleen eta bertan inplikaturako pertsona guztien boluntarioritza-lanari esker egiten dira. Era berean, udalekin eta aztarnategiak dituzten udalerrietako herritarrekin lankidetzan garatzen dira. Hori guztia dela eta, eskerrak eman nahi ditugu boluntarioritza arkeologiko horrengatik; izan ere, horrela izan ezean, proiektuak ezingo lirateke burutu. Era berean, azpimarratzekoak dira hainbat unibertsitaterekiko lankidetzak eta Nafarroako Gobernuaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien laguntzak.

Parte hartzeko, laguntzeko eta ikasteko interesa duten pertsonen eskariari erantzuteko, informazio-liburuxka hau egin da; bertan, Aranzadik 2025ean jendearentzat zabalik dituen indusketen oinarriko informazioa aurkituko duzu. Aurten ere bai mantenu eta garbiketa lanak eskeinitako dira.

Interesa baduzu, izena eman dezakezu ondorengo formularioan 2025eko ekainaren 01 arte.

## **FORMULARIOA BETE**



# PAGOBEDEINKATU

Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoa (Soraluze, Gipuzkoa).



Mota: Trikuharria, Historiaurreko hilobi megalitikoa

Kronologia: Neolito-Brontze Aroa (K.a. 4.000-1.500)

Indusketa - datak: ekainak 9-29.

Zuzendaritza: Jesus Tapia

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania).

Izena emateko prezioa: Doakoa. Zuzendaritzak bazkariak ordainduko ditu eta mendian egingo dira (ogitartekoa). Ez dago lo egiteko ostaturik. Aztarnategira iristeko 4 x 4 ibilgailuan igoko gara egunero Soraluzetik, eta ondoren 10-15 minutuko ibilaldia egin behar da oinez. Lana eskuz egingo da, aire librean.

Leku-kopurua: 6

Pagobedeinkatu trikuharria Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenak aztertu zuten 1920ko goiz batean eta suharrizko printza bat aurkitu zuten soilik, monumentua aldez aurretik arpilatuta zegoelako. Tumuluak 9 metroko diametroa dauka eta ez da hil-ganbarako harlauzarik ezagutzen. Indusketaren helburuak dira egituraren ezaugarri arkitektonikoak zehaztea, C14 dataziorako laginak lortzea eta material arkeologikoak berreskuratzea. zehaztea, C14 dataziorako laginak lortzea eta material arkeologikoak berreskuratzea.



# GENDULAIN

(Agoitz/ Aoiz, Nafarroa Garaia)



Mota: Indusketa arkeologikoa.

Kronologia: Erdi Aroa

Indusketa - datak: ekainak 13-16

Zuzendaritza: Oihane Mendizabal Sandonis.

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania).

Izena emateko prezioa: Doakoa.

Leku-kopurua: 10

LAGUNTZAILEA: Innova proiektua, HIDEA, Agoitzeko Udala.

Gendulaingo ermitak interes eta sinbolismo handia du Agoitzeko biztanleen artean, horren erakusgarri da herriko armarrian leku horretan kokatutako bake hitzarmen bat irudikatu izana. Hala ere, ikuspegi arkeologikotik haratago joan nahi da Erdi Aroan despopulatu zen herri honen ezagutzan eta horretarako lurpean mantendu diren egitura eta materialen aurkikuntza lanetan sakondu nahi da, basilizari testuinguru zabalagoa emanez.



# DONAZAHARRE

(Saint Jean Le Vieux, Nafarroa Behera)



Mota: Indusketa arkeologikoa.

Kronologia: Erromatar garaiko hirigunea.

Indusketa-datak: Ekaina 18-28.

Zuzendaritza: Oihane Mendizabal Sandonis.

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania).

Izena emateko prezioa: Doakoa (ostatua eta bazkariak barne).

Leku kopurua: 5

Colaboran: Donazaharreko Herriko Etxea, Service Régional de l'Archéologie (SRA), Direction régionale des Affaires culturelles (DRAC)..

Nafar prepirinioan kokatutako aztarnategi honetan Aranzadiko lantaldea hamarkada bat baina gehiagoz ikertzen aritu da erromatar galtzada eta haren ertzean kokatuta dagoen kokalekua. Bertan, zenbait eraikin identifikatu dira eta horien artean egitura esanguratsuenak termaguneara izan da, bere osotasunean industria izan dena. Hori horrela, aurtengo kanpainan erromatar garaia eta Erdi Aroaren arteko trantsizioan sakondu nahi da, Jaurgoren inguruan planteatutako eskuhartzearen bidez.



# RESA

(Andosilla, Nafarroa)



Mota: Induketa arkeologikoa.

Kronologia: Erdi Aroa.

Indusketa-datak: Ekainak 23-28.

Zuzendaritza: Josu Narbarte.

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelera).

Izen-emateko prezioa: Doakoa.

Leku-kopurua: 5

Laguntzailea: Andosillako Udala eta Nafar Gobernuua.

Lan egingo den aztarnategi arkeologikoa Ebro ibaiaren ertzean dago, Resa izeneko eremuan, eta eremu hori Andosillako udalerriri dagokio. Lan arkeologikoa egingo da Erdi Aroko egitura bat induskatzeko. Egitura hori arkeologia- eta antropologia-intereseko hainbat gunek inguratzen dute, eta aurrez hainbat lan egin dira bertan.



# KOSKOBILO

(Olazti, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa kobazuloan.

Kronologia: Paleolitoa eta Neolitoa.

Indusketa-datak: Ekainak 30 - Uztailak 27

Zuzendaritza: Daniel Ruiz Gonzalez.

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania).

Izena emateko prezioa: Doakoa (lo egiteko tokia eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Olaztiko Udala.

Koskobilo harrobiaren inguruan garatzen den ikerketa-proiektua. Hainbat eremutan egindako eskuhartzeko arkeologikoei esker, Historiaurrean zehar (Erdi Paleolitikotik Neolitora) gunea okupatu zuten hainbat giza-talderen aztarnak topatu ditugu, bai kobazuloetan eta baita aire zabalean ere. Kanpaina honetan, Koskobilo II kobazuloaren indusketarekin jarraituko dugu eta ondoan dagoen beste kobazulo batean zundaketa egingo dugu. Aurreko kanpainetan, Neolito garaian ehorzketak egiteko toki gisa erabiltzen zenaren hainbat aztarna material berreskuratu ditugu (giza-hezurak, suharri tresnak, lurrontzi pusketak, etab.) eta baita Goi Paleolito eta honen amaierako okupazioen hainbat aztarna ere (harrizko tresneria, fauna, etab.).



# SAN ADRIAN - LIZARRATE

Partzuergo orokorra



Mota: Indusketa arkeologikoa koban.

Kronologia: Goi-paleolitoa, Erromanizazioa, Brontze Aroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa.

Indusketa-datak: Ekainak 30 - Uztailak 12

Zuzendaritza: Alfredo Moraza, Manu Ceberio, Jexux Tapia.

Hizkuntza: Elebiduna (gaztelania eta euskara).

Prezioa: Doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 12

Laguntzaileak: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia, Zegamako, Segurako, Idiazabalgo, Asparrenako, Donemiliagako eta Zeraingo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Aizkorri Parkea.

San Adrian-Lizarrate kobako aztarnategia da; bertan, Erdi paleolitikotik hasita XX. mende arteko material arkeologikoak jasotzen dira. Suharrizko tresnak, hezur- eta fauna-hondakinak, txanponak eta arma-zatiak eta antzinako eraikinak daude Gipuzkoa sakonean, 1000 metrotik gora dagoen koba honetan.





# IRULEGI

(Arangurengo Bailara, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan.

Kronologia: Burdina Aroa eta Erromatar garaia.

Indusketa-datak: 3 talde:

**1. taldea:** Uztailak 1- 13

**2. taldea:** uztailak 15 - 27

**3. taldea:** uztailak 29 - abuztuak 10

Zuzendaritza: Mattin Aiestaran.

Hizkuntza: Eleanitza / Multilingüe

Izena emateko prezioa: Doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 15

Laguntzaileak: Aranguren Ibarreko Udala, Nafarroako Gobernu.

Iruñerriko Baskoien Burdin Aroko herrixka gotortu baten ikerketa da, zeinaren gainean gaur egun induskatuta eta musealizatuta dagoen Behe Erdi Aroko gaztelu bat eraikia izan baitzen. Bertako jendearen eguneroko bizimodua aztertzea dugu xede, hirigintza eta defentsa-sistemarekin batera.



# ZALDUA

Pirinioko erromatar galtzada  
(Auritz, Aurizberri, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa erromotar garaiko hirigunea.

Kronologia: K.a. I - K.o. V

Indusketa-datak: uztailak 7 - 27

Zuzendaritza: Oihane Mendizabal Sandonís.

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania).

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 6

Laguntzaileak: Auritz/Burgeteko Udala eta Nafar Gobernuua.

Pirinioak alderik alde zeharkatzen dituen galtzadan kokatutako erromotar garaiko hirigunea da Zaldua eta 2017tik gaurdaino termen eraikina industen ari da bertan. Urtero antolatutako udako indusketa kanpainaren helburu nagusiak honako hauek dira: kokaleku horri buruz informazioa eskuratzea, aztarnategia gizartean ezagutaraztea eta kanpainan parte hartzen duten partaideei erregistro arkeologikoan trebakuntza eskaintzea.



# MUNOAUNDI

(Azkoitia-Azpeitia, Gipuzkoa)



Mota: Indusketa arkeologikoa herri harresitua.

Kronologia: Bigarren Burdin Aroa.

Indusketa-datak: uztailak 7-26

Zuzendaritza: Antxoka Martínez.

Hizkuntza: Elebiduna (gaztelania eta euskara).

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 20

Laguntzaileak: Azpeitiko eta Azkoitiko udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Munoaundi herri harresitua izen bereko tontorra okupatzen du Iraurgi bailaran, Azkoitia eta Azpeitia herrien artean. Ekinaldi honetarako aurrikusita daukagu lan egitea indusketa eremu desberdinetan, etxebizitzak eta harreria aztertzen. Katak ere egingo ditugu gune berri batean, baita hilerria bilatzeko ere.



# BABIO

(Izoria, Araba)



Mota: Herrixka harresitua, aire zabalekoa.

Kronologia: Burdin Aroa

Indusketa-datak: Uztailaren 14tik - 26ra (2 aste).

Zuzendaritza: Jon Obaldia.

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera.

Izen-emateko prezioa: Doakoa. Ostatua eta mantenua barne.

Leku-kopurua: 8

Laguntzaileak: Aiarako udala, Izoriako Kontzejua eta Aztarna Elkarte Etnografikoa.

Babioko herrixka gotortua Izorian dago (Araba), 1981ean aurkitu zen eta 10 hektareako herri gotortua da. Azken kanpainetan egiten ari diren lanen helburua etxebizitzaren espazioa mugatzea eta defentsa-sistema aztertzea da.



# BASAGAIN

(Anoeta, Gipuzkoa)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan.

Kronologia: Burdin Aroa.

Indusketa-datak: Abuztuak 18 - Irailak 6

Zuzendaritza: Xabier Peñalver, Eloisa Uribarri.

Hizkuntza: Elebiduna (gaztelania eta euskara).

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 15

Laguntzaileak: Anoetako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Burdin Aroko herrixka Anoetako (Gipuzkoa) Basagain mendian dago, eta duela 20 urte baino gehiagotik hona egiaztatu da bertan merkataritza-jarduera zegoela, besteak beste agertutako materialarengatik: burdinazko eta zeramikazko tresnak; beira-aleak eta abar.



# ANDATZA II

(Usurbil - Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa)



Mota: Indusketa arkeologikoa monumentu megalitikoan.

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa.

Indusketa-datak: Iraila.

Zuzendaritza: Izaro Quevedo, Manu Ceberio.

Hizkuntza: Elebiduna (gaztelania eta euskara).

Izena emateko prezioa: Doakoa (bazkariak barne).

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Andatza II izeneko trikuharria edo dolmena ikertzen ari da. Aurten hil-ganbara ikertuko da eta aldamenean dagoen zutarria.



# IRIGAIN

(Usurbil, Gipuzkoa)



Mota: Aire zabaleko aztarnategia.

Kronologia: Erromatar garaia

Jarduera-datak: Iraila - urria.

Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo

Hizkuntza: Elebitan (gaztelera y euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (bazkariak barne).

Leku kopurua: 5

Laguntzaileak : Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Irigaingo aztarnategia erromatar garaiko aztarnategi bat da. Bertan lurzorua eta material arkeologikoak aurkitzen dira. Inguru horretan egurrezko eraikin batzuk kokatu ziren, antzinaroko nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-unitate pare bat.



# ARTZI

(Artzibar, Nafarroa)



Mota: Indusketa arkeologikoa. Galtzada ertzeko herrigunea.

Kronologia: Erromatarra eta Erdi Aroa.

Indusketa-datak: Iraila (zehazteke)

Zuzendaritza: Oihane Mendizabal Sandonis.

Hizkuntza: Elebiduna (euskara eta gaztelania).

Izena emateko prezioa: Doakoa (ostatua eta bazkariak barne).

Nº de plazas: 5

Colaboran: Artzibarreko Udala eta Nafar Gobernua.

Nafar prepirinioan kokatutako aztarnategi honetan Aranzadiko lantaldea hamarkada bat baina gehiagoz ikertzen aritu da erromatar galtzada eta haren ertzean kokatuta dagoen kokalekua. Bertan, zenbait eraikin identifikatu dira eta horien artean egitura esanguratsuenak termagunearena izan da, bere osotasunean industria izan dena. Hori horrela, aurtengo kanpainan erromatar garaia eta Erdi Aroaren arteko trantsizioan sakondu nahi da, Jaurgoren inguruan planteatutako eskuhartzearen bidez.





# auzolan arkeologikoak

---



1



2



3

# Amaiur gaztelua

(Amaiur, Nafarroa)



Mota: Auzolandegia gazteluan.

Kronologia: Erdi Aroa

Indusketa- datak: Abuztuak 4 - 14

Zuzendaritza: Jantxo Agirre Mauleon.

Hizkuntza: Euskara.

Izena emateko prezioa: 10 euro / eguna.

Leku kopurua: 24

Laguntzaileak: Amaiurko herria.

Azken urteetako dinamikari jarraiki, aztarnategian mantentze lanak egingo dira. Jarduera hau historian eta ondarean interesa duen pertsona orori bideratuta dago. Ez da aurretiazko ezagutzarik behar planteaturiko jardueretarako.

# Zerbitzu

---

## arkeologikoak

- Indusketak, zundaketak eta prospekzio arkeologikoak
- Obren kontrol arkeologikoa (lur mugimenduak, sastrakak kentzea...)
- Azterlan historiko-arkeologikoak eta dokumentalak
- Ondasun higiezinaren eta higigarrien azterlana eta balorazioa
- Prospekzio geofisikoak
- Laser bidezko eskaneatzea eta aztarnategien topografiatzea
- Aztarnategien aireko argazkia
- Material arkeologikoen azterlan espezializatua (zeramika, fauna, litikoa)
- Azterketa antropologikoak
- Aztarnategien eta material arkeologikoen inbentarioa eta katalogazioa
- Legezko aholkularitza - hirigintza-plangintzako arauak
- Aholkularitza historikoa
- Itzulpen espezializatuak
- Argitalpenak
- Ondare-elementuen musealizazioa eta seinalizazioa
- Aztarnategi arkeologikoak finkatzea eta lehengoratzea
- Publikoari oro har eta eskolatuari zuzendutako tailer didaktikoak
- Erakusketen antolamendua
- Ondareari buruzko unitate didaktikoak eta e-learning ikastaroak
- Auzolandegiak eta boluntariotza-lanak antolatzea

Informazio gehiago: [www.aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)

Harremanetarako: [historiaurrea@aranzadi.eus](mailto:historiaurrea@aranzadi.eus) / [arkeologia@aranzadi.eus](mailto:arkeologia@aranzadi.eus)



# Laguntzaileak

## Instituzioak:



## Udalak:



Alkiza



Anoeta



Andosilla



Agoitz

Altzurüküko Udala  
Mairie d'Aussurucq



Aranguren



Artzibar



Auritz



Baztan



Donazaharre  
Saint Jean le Viex



Olazti



Soraluze



Usurbil



Zegama

## Elkartek:




Gaztelu Elkartea





*Ez dago etorkizunik zientziarik gabe,  
ezta iraganik memoriarik gabe ere.*

*No hay futuro sin ciencia, ni pasado sin memoria.*



Zorroagagaina 11  
20014 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 466 142  
[www.aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)